



FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure zerbitzua aurrera eramateko, guk egingo eta beteko ditugun funtzioak zehazteko balio du atal honek, hau da, kanpoko enpresen laguntzarik gabe guk beteko ditugun eginbeharrak. Horregatik, taldeko partaide bakoitzak ekintza bat edo bi beteko ditu, aplikazioaren sorrera eta mantenimendua aurrera eramateko.

Lehenik eta behin, aplikazioaren programazioaz eta diseinuaz Eider arduratuko da. Bere eginkizun nagusia aplikazioa sortzea eta diseinatzen izango da. Horretarako, hasiera batean honen zirriborroa egingo du, aplikazioaren estruktura eta xehetasunak definituz eta zehaztuz. Behin hori eginda, aplikazioaren sorrerari ekingo dio.

Bigarrenik, Ane arduratuko da gure produktuaren promozioaz. Hau ezinbestekoa izango da, geroz eta pertsona gehiagoren artean gure aplikazioa ezagunagoa izateko. Bere eginkizun nagusia Instagram eta Facebook sare sozialetan informazioa eguneratuta argitaratzea izango da. Gainera, aplikazioa nola erabiltzen den azalduko du, eta gure proiektuak dituen abantailak eta ezaugarriez mintzatuko du, argazki eta bideoen bitartez. Hortaz aparte, bera izango da ere app-ean bezeroen zalantzak argitzeko dagoen atalaz arduratuko dena.



Bestalde, gure enpresaren finantziarioaz arduratuko den pertsona Mirene izango da. Bere betebeharrak nagusia gure zerbitzuaren kontabilitatea eramatea izango da, eta diru sarrerak kontu korrontera iristen direla eta zerbitzua bideragarria dela ziurtatuko du. Gure zerbitzua dohakoa da, beraz, diru laguntzak (Greenpeace eta Udaletxeenak) beharrezkoak izango dira gure zerbitzuarentzat; izan ere, gure oinarri ekonomikoaren zati garrantzitsuenetariko bat dira.



Elkarte eta erakundeekin harremanak egiteaz eta mantentzeaz Maialen arduratuko da. Bere lana besteei gure lana eta produktua azaltzea eta eskaintzea da gure partaide bihurtzeko. Behin aliantza eginda dagoela, beraiekin komunikatzearen ardura izango du. Adibidez, Bask arropa dendarekin kontaktuan jartzeko garaian, bera egongo da kontaktuan momentu oro, dena behar den bezala ateratzen dela baieztatuz. Denok parte hartuko dugu botilen diseinua adosten, baina ondoren bera izango da horren erantzule nagusia, eta gure nahiak helaraziko dituena.

Azkenik, aplikaziora informazio guztia txertatzeaz Ane eta Mirene arduratuko dira. Hauen eginkizun nagusia app-a argitaratu aurretik produktu guztien barra-kodea eta argazkiak txertatzea izango da. Eta produkturen bat bertan erregistratuta egongo ez balitz ere, beraiek arduratuko dira bezeroak txertatutako argazkia aztertzen eta horri dagokion informazio guztia gehietzen.

